


Beasain

400

urte
mugarri



Sarrera

2015. urtean zehar Beasaingo udalerria sortu zeneko 400. Urteurrena ospatzen ari da. Horregatik udalerriaren eta bere bizilagunen izaera eta identitatea ezagutzen lagunduko duten ekintza ezberdinak burutzen ari dira.

Kronograma honek udalerriaren bilakaeran eta egungo konfigurazio eta morfologian garrantzia izan duten 400 mugarri jasotzea du helburu. Ezin

dugu ahaztu elkarte ezberdin eta herritar ugariren laguntza eta ekarpenekin egin izan dela.

Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiegu 400 urte hauetan zehar udalerrian eta udalerriarentzat lan egin duzuen bizilagun guztioi, eta bereziki gaur egungo biztanleoi urteurren honetako ekintzetan parte aktibo izanagatik.

Argazkien bibliografia

- A1.-** 1915.urtean Felipe III.a Igartzako burdinola ikusten. Emilio Truchuelo, 1948.
A2.- Arane-zar baserria. Martin Garciaren artxiboa, Urdampilleta familiaren argazkia.
A3.- Loinazko ermita. Beasaingo Udal Artxiboa.
A4.- Fábrica de Hierros San Martin. Beasaingo Udal Artxiboa.
A5.- Beasaingo irudia. Martin Garciaren jabetzako postala.
A6.- Arangoitiko Egoitza zaharra. Beasaingo Udal Artxiboa.
A7.- Ezkiaga auzoko Langile Etxeak. Martin Garciaren Artxiboa.
A8.- 1907.urtean ateratako bagoi bat. Beasaingo Udal Artxiboa.
A9.- La Salle Ikastetxea. Beasaingo Udal Artxiboa.
A10.- Euskalduna Tinta Fabrika 1912. urtean. Martin Garciaren Artxiboa, Tintas Hunoltek emana.
A11.- Guardia Zibilen Kuartelaren argazkia. Martin Garciaren argazkia, C.A.Fek emana.
A12.- Txirrindulari frogia. Beasaingo Udal Artxiboa.
A13.- Herriko danborrada konpainien bilkuran. Beasaingo Udal Artxiboa.
A14.- Cafeko eskola etxea. Beasaingo Udal Artxiboa.
A15.- Zubi-muzu plaza. Egile Ezezaguna.
A16.- Eskisabel eta Kideak Altzari Fabrika. Beasaingo Udal Artxiboa.
A17.- Astigarreta auzoa. Beasaingo Udal Artxiboa.
A18.- Abere Hiltegia. Juanjo Martin Huerta, 1991.
A19.- Arriarango intxaurrondoa. Martin Garciaren artxiboa, Insausti familiak utzita.
A20.- Loinaz abesbatza Beasaingo azoka plazan. Beasaingo Udalaren Artxiboa.
A21.- 1936ko maiatzaren 24ko Loinatz jaiak. Beasaingo Udal

Artxiboa.

- A22.-** Usurbe mendiko gurutza. Juantxo Unanua.
A23.- N-1 Errepidearen obrak. Martin Garciaren artxiboa, Koro Agirrek emana.
A24.- Zelaetako baserria 1955.urtean. Martin Garciaren Artxiboa, Pako Sarriegik emana.
A25.- Senpereko futbol zelaia 1958an. Egile ezezaguna, Josetxo Zufiaurren artxiboa.
A26.- Usurbe antzokiaren inaugurazioa. Juantxo Unanua.
A27.- Urteaga ostua 1959. urtean. Josetxo Zufiaurren artxiboa.
A28.- Ezkiaga txiki baserria. Martin Garciaren Artxiboa.
A29.- Mariarats baserria 1978.urtean. Martin Garciaren Artxiboa, Aranburu familiak emana.
A30.- Renfeko geltoki zaharra. Beasaingo Udal Artxiboa.
A31.- Antzizarko Pipar Enea baserria. Martin Garciaren jabetzako postal zaharra.
A32.- Murumendiko trikuharriaren indusketa. Josean Mujika, 1983.
A33.- Asmubeko emakumeak. Juantxo Unanua.
A34.- Arriarango urtegia. Beasaingo Udal Artxiboa.
A35.- Arbitrio etxea marrazkitan. Juanjo Martin Huerta, 1991.
A36.- Udalbatzaren soka dantza. Carlos Huerta, 2001.
A37.- Igartzako ezpata dantza, Jauregiaren inaugurazioan. Beasaingo Udal Artxiboa.
A38.- Zaldizurretako osasun zentroa botatzen. Juantxo Unanua.
A39.- Neskatxen soka dantza San Juan bezperan. Juantxo Unanua.
A40.- Zaldizurretako errotanda. Juantxo Unanua.


Bibliografia (1)


- Aguires Mauleon, J.** (Coord) (2000). Igartza: historia eta kultur ondarea. Beasaingo paperak 8. Zenbakia. Beasain: Beasaingo Udala.
Aranburu, P.J. eta Intza, L.M. (2008). Beasainek bere bilakaera garraibide eta industriari zor, 1840-1940. Beasaingo paperak 16. Zenbakia. Beasain: Beasaingo Udala.
Aurtzaka dantza taldea (2004). Dantza Beasainen: Aurtzaka 25 urte. Beasaingo paperak 12. Zenbakia. Beasain: Beasaingo Udala.

- Garcia Garmendia, M.** (2014). Beasaingo herrigunea 1615ean eta bere bilakaera. Beasaingo paperak 22. Zenbakia. Beasain: Beasaingo Udala.
Herriko elkarteak (1992). Beasaingo elkarte herrikoiak. Beasaingo paperak 1.go zenbakia. Beasain: Beasaingo Udala.
Laborde, F. eta Garcia, M. (2001). Beasain 1900-2000. Ehun urteko historia irudietan. Beasaingo paperak 9. Zenbakia. Beasain: Beasaingo Udala.



Beasaingo Udala





1868

Azaroaren 16an, erabaki zen Enparantzako Udaletxea leku aproposa zela "Hasierako eskolak" kokatzeko.

1878

Herriko lehen pilotalekua egin zuten; gero honi beste pilotaleku txikiago bat eta Bola-tokia gehitu zitzaizkion.



1881

Maiatzaren 20an, Oinarrizko Musika Eskola sortu zen. Hemendik jaio zen Beasaingo Udal Musika banda.

1881

Ekainaren 28an, izendatu zuten Juan Jose Telleria Beasaingo Parrokiako organo-jole.

1882

Gudugarreta da hiru Hiribilduetatik Beasaini atxiki zitzaion lehena.

1882

Urriaren 1ean, inauguratu ziren garai bateko Arangoiti baserriaren lur-sailetan, herriko gaixo behartsuentzako Ospitalea eta Otoiztegi edo Kapera. Martina Maizen diru-laguntzari esker egin zen hau guztia.



1890

Aipamen batzuen arabera, Beasaingo La Maquinista Guipuzcoana enpresan greba mugimendu bat gertatu zen.

1898

Martxoan Kontsumo Kooperatiba Elkarteak sortu zen, Antonio Etxeberriak bultzatuta.

1901

Jose Martin Arana jauna izan zen herriko alkatea mende hasieran.

1901

QUIFOSA produktu kimikoen lantegia sortu zen, eskuzko pilotaleku zaharraren ondoan.

1901

Urtarrilaren 22an, beste greba bat izan zen La Maquinista Guipuzcoana enpresan, ajustatzaileen lantegian.

1902

Ezkiaga auzoko Langileen Etxeak eraiki ziren, garai hartako Europako lantegi-gune handiek ezarritako arauak betez.



1902

Nartziso Crehuet Xafora jaunak hartu zuen alkatetza (1902-1904).

1902

Uztailaren 23an, jarri zen SECM enpresa eraikitze lehen harria. Urte horretatik aurrera Fabrica de Vagones de Beasain izena hartu zuen eta sozietate anonimo bezala eratu zen.

1903

SECM enpresaren administraziopean, lehen Sorospen Kutxa sortu zen, istripu edo gaixotasunen bat jasaten zuten langileei laguntzeko.

1903

Ugartemendigoikoa baserria eraiki zuten.

1904

Haur Eskola berria sortu zen Andre Mari kalean, gerora Arte eta Lanbide Eskola izango zenaren beheko solairuan.

1904

Beasaingo Casino Recreativo aisialdi elkarteak eratu zen, eta berekin Futbol Elkarteak. Elkarte hau izan zen hainbat hamarkadetan herriko bizimodu sozialaren ardatz.

1905

Elosegienea baserria eraiki zen Parrokiaren ondoan, Seroretxe etxearen azpian. Azken urteetan Artzaineak esan ohi zitzaion.

1905

Jose Migel Iturriotz oparo eta karismaduna iristen da alkatetzara (1906-1919).



1905

Martxoaren 13an, SECM enpresatik lehen bagoia irten zen.

1906

SECM enpresak Lantegiko Botika izeneko inauraturatzen Ezkiaga Auzoan. Jose Jauregi Gorostidi jauna izan zen arduraduna.

1906

Martxoaren 22an, hartu zen, gaur egun Andre Mariaren Elizan dagoen Merklin etxeko organoa erosteko erabakia. 10.000 pezeta ordaindu zituzten eta honen finantzaketa herritarrek emandako diruarekin eta Udalak emandako bi mila pezetarekin egin zen.

1907

Beasaingo Karlisten elkarte (Círculo Carlista) sortu zen.

1907

Bideluze kaleko bost etxe eraiki ziren, Oria ibaiaren alboan.

1908

Zelaetako Kanposantua ireki zen.

1908

Senpere baserriaren inguruan soldadu frantsesen gorpuzkinak agertu ziren.

1908

La Salleko Anaiekin harremanak izateko Guraso Batzordea eratu zen. Jose Migel Iturriotz, Raimundo Suarez eta Florentino Cerrajería jaunek osatzen zuten aipaturiko batzordea.

1908

Jose Martin Aranak, idazteko tintak fabrikatzeko tailer txiki bat sortu zuen Beasainen egurra destilatzeke zegoen beste industria bat aprobetxatuz eta hango tanua erabiltzen zuen tinta beltza egiteko. Hortik sortu zen Euskalduna Tinta fabrika.

1908

Gizarte aurrerapen gisa, SECMko langile ekonomatua sortu zen. Beasaingo merkataritzarentzat kolpe latza izan zen eta denbora asko behar izan zuten egoera gaitzitzeko.

1908

Azaroaren 22an, Beasaingo lehen Batzokia inauguratu zuten.

1909

Albisturko Zazpiburrieta iturburuetako urak ekarri ziren Letamendiako Sagastiguti depositura. Kostua 188.000 pezetakoa izan zen.

1909

Otsailaren 5ean, Eskola Kristauetako Anaiei ikastetxea inauguratu zen Andre Mari kaleko Sangroniz baserrian. Otsailaren 8an hasi ziren eskolak ematen.

1909

Martxoaren 15etik 16ra bitarteko gauean su hartu zuen pilotaleku zaharraren atzean zegoen QUIFOSA lantegiak.

1910

Erauskin auzoko bizilagunek iturburuak erosi eta ur-depositua eraiki zuten guztientzat.

1910

Alfontso XIII. Erregeak SECM edo Beasaingo Bagoi Fabrika ere esan ohi zitzaion enpresa bisitatu zuen.

1910

Martin Lasa Ibarbia jaunak hartu zuen alkatetza (1910-1912).

1910

Zelaetatxiki baserriak su hartu ondoren eraiki zuten, 1996an bota zuten arte ezagutu genuena.


1910

Olabe eta Simonenea etxeak eraiki zituzten Udaletxeko plazara igotzeko aldan.

1911

Trenaren bigarren errail-bidea egiteko lanetan hasi ziren Altsasu-Beasain ibilbidean. Gertaera honek, geltokian lan egiten zutenen kopurua harteaz gain, bultzada berri bat eman zion herriaren hazkundeari.





1912
Euskalduna Tinta
Fabrikak izen
berria hartu
zuen: Emilio
Hunolt Tinta
Fabrika.

1912

1913

Albisturko Arkasingo iturburuak erosi ziren. Lehendik zegoen ur-emariari 3,5 litro erantsi zitzaizkion segundoko.

1913

Udaletxearen azpian zegoen plaza arkupeduna bota zuten, Azoka eta plazaren egungo egitura eraiki zuten.

1914

Guardia Zibilaren kuartela eraikitzeko lanak amaitu ziren Ezkiaga auzoan.



1914

Maiatzaren 30ean, Udal solfeo akademia sortu zen, musika irakatsi eta Udal Bandako musikariak izango zirenak trebatzeko.

1915

Arrillaga eta Murua Altzari Fabrika inauguratu zuten.

1915

Raimundo Suarez jaunak bizikletak saldu eta alokatzeko denda moderno bat ireki zuen Kale Berriko 1 zenbakian.

1915

Apirilaren 3an, Arte eta Lanbide Eskola inauguratu zen. Horretarako solairu bat erantsi zitzaion Andre Mari kaleko Haur Eskolari.

1916

Club Deportivo eta Casino Recreativo elkarteek lehen txirrindulari lasterketak antolatu zituzten.

1917

Herriko lehen merkatarik elkartea sortu zen. Honen izena Kafe-Etxe jabe, Tabernari eta Antzekoen Merkatarik Elkartea izan zen, "Sociedad Gremial de cafeteros, taberneros y similares". Geroago Beasaingo Merkatarikien Elkargo Nagusi bilakatu zena.

1917

UGT sindikatuaren Hainbat Lanbidetako Elkartea inauguratu zuten.

1917

Eusko Langileen Alkartasuna deritzon sindikatua eratu zen Beasainen.

1917

Jose Martin Arana jaunak lehen inprimategia ireki zuen Beasainen.

1917

SECMko ekonomatuak sukurtsal bat ireki zuen Kasinoa zegoen eraikinean.

1917

Martxoaren 4an, Compañía Auxiliar de Ferrocarriles (CAF) enpresa eratu zen SECM enpresaren gainean.

1917

Uztailaren 16an, Jose Migel Iturriotz jauna alkate zela, Zelaetako hilerria inauguratu zen.

1918

Irailaren 25ean, gripe-epidemia larri baten erruz, herrian 60 lagun hil ziren eta eskolak itxi.

1919

Club Deportivo Elkarateak amateur mailako txirrindulari federatuen Gipuzkoako I. Txapelketa antolatu zuen. Zumarragako Jose Mendia izan zen irabazlea.



1919

Jazinto Urteaga lurrita jaunak hartu zuen alkatetza (1919-1923).

1919

Apirilaren 27an, S.D. Senpere elkartea inauguratu zuten

1920

Usurbe Elkarteak sortu zen, herriko elkarte gastronomikoa zaharrena. Donostiatik ekarri zuten lagunen eta solaskideen topagune lekua izateko ideia eta esperientzia berria.

1920

Apirilean Beasaingo Langileen Sindikatu Bakarra sortu zen.

1920

Club Deportivo elkartearen jarduerak izan zuten beheraldiaren aurrean, aurrerantzean herriko futbola zuzenduko zuen S.D. Beasain F.C. futbol elkarteak sortu zen.

1920

Sociedad Recreativa Ferroviaria elkarteak sortu zen, Casino Recreativo aisialdi elkartearen antzekoa.

1920

Bernedo, Etxeberria eta Elortza lantegia sortu zen, giltza finko eta erregulagarriak egiteko.

1920

Pedro Arana Gaiztarro jaunak hartu zuen alkatezta (1920-1922).

1920

Zuntzunegi eta Aranburu jaunek inprimategi bat ireki zuten Kale Nagusiko 15ean.

1920

Ekainaren 19an, Kasino Elkarteak lehen danborrada antolatu zuen.



A13

1920

Abenduaren 24an, sortu zen 16 eta 18 urte bitarteko lagun-talde baten eskutik, Beasain Foot-ball Cluba.

1921

Jose Martin Aranaren seme ziren Serafin eta Pedro anaiei Ihizko Fabrika sortu zen Ezkiaga auzoan.

1922

Ekain aldera Aranburu y Tiffe izeneko aroztegi mekanikoa sortu zen.

1922

Beasain Jaietan aldirikariaren lehen alea argitaratu zen Geltoki kaleko (egun Nafarroa Etorbidea) 5ean zegoen Zuntzunegiren inprimategian.

1923

Jose Guridi Balantzategi jaunak hartu zuen alkatezta (1923-1930).

1923

CAFek bere Lanbide Ikasleen Eskola sortu zuen Ezkiaga auzoan, 156 ikasle eskolaratuz.



A14

1924

Plazako Udaletxe berria, Eskola Graduatuak eta Funtzionarioen Etxeak inauguratu ziren.

1925

Berasategi, Olabarrieta eta Kideak inprimategia ireki zen.

1925

CAF enpresak jabetzan hartu zuen ordura arte errentan zuen Bagoi Fabrika.

1925

Casino Recreativo eta S.D. Beasain F.C. elkarteek bat egin zuten. Aurrerantzean C.R. Beasain F.C. izena hartu zuen elkarte berriak.

1925

Maiatzaren 10ean, Beasaingo Nekazarien Sindikatua eratu zen.

1926

C.R. Beasain F.C. elkarteak 90 km-ko ibilbidea zuen I. Loinatz Txirindulari Lasterketa antolatu zuen. Rikardo Montero izan zen garailea.

1926

Ganadu Azoka egiteko Frontoi pasealekua asfaltatu zen.

1927



Zubimuzu plaza ere esan ohi zaion handizkako azoka berria eraiki zen.

1927

Irailaren 14ko lege baten arabera, debekaturik zegoen 15km baino gutxiagoko tartea zuten herrietan azoka egitea.

1928

Igartetxe baserriaren zati bat bota zuten, oraindik zutik dirauen etxebizitza-eraikina berreraikitzeko.

1928



Urriaren 18an, Eskisabel eta Kideak Altzari Fabrika sortu zen. Hasieran Esnaola Burdindegiaeren atzean kokaturik egon zen. 1930ean hiltegi inguruko lantegira aldatu zen.

1929

Txintxurreta etxea eraiki zen Senperen.

1929

Maiatzaren 29an, La Salleko Ikasle Ohien elkarteak eratu zen, eta Gil Iturrioz jauna izan zen elkarteko lehen lehendakaria.

1930

Jose Bizente Iraola jaunak hartu zuen alkatetza (1930-1931).

1930

Abenduaren 31n, inauguratu zen Gipuzkoa plaza. Plaza hau Hiltegi plaza izenez ere ezagutzen zen.

1931

QUIFOSA lantegiak itxi ziren, bata frontoi zaharraren atzean zegoena eta Lizarrustikoa bestea.

1926

Otsailaren 2an, Kandelario egunean, astearteko feriarik hasiera eman zitzaion.

1927

Abuztuaren 10ean, ordura arte Itsasoko udalerrikoa izandako Arriaran auzoa elkartu zitzaion Beasaini.

1928

Txintxurreta baserria bota zuten, CAFeko galdategi eta labe lantegien atzean zegoena.

1928

Goiko plazako musika-kiosko berria inauguratu zuten.

1928

Abenduaren 31n, Astigarreta auzoa elkartu zitzaion Beasaini.




1929

Altsasu-Beasain-Irun ibilbideko trenbidea elektrifikatu zen. Ordura arte lurrunezko trakzioa erabili zen.

1930

Eskualdeko Abere Hiltegia eta bertara joateko zubi zaharra inauguratu ziren.



1930

Greba Orokorra Beasainen.

1931

Frantzisko Urteaga lurrita jaunak hartu zuen alkatetza (1931-1934).

1931

Eskualdeko babesgabeentzat doako jantokiak ipini ziren Udaletxeko Eskoletan. Herriko boluntarioek lan egiten zuten bertan.

1931

Niceto Alcalá Zamora Errepublikako Presidenteari harrera egin zitzaion Beasaingo Geltokian.

1931

Abenduaren 31n, ireki zen abere-hiltokia. Garai hartarako probintziako aurrerapen onenekin hornitua zegoen.

1932

Transportes Azkar garraio enpresa sortu zen Beasainen. Nafarroa Etorbideko 3 zenbakian zuen bere egoitza.

1932

Beasaingo telegrafo bulegoa itxi zuten.

1932

Otsailaren 2an, Gernika Pasealekuan Loinazko San Martinen irudia zuen estatua eraiki zuten.

1932

Abenduaren 31n, Arriarango plazan zegoen Gipuzkoako intxaurrendorik handiena bota zuten.



1933

Antzizar-Katea aldean zerga-bilketarako erabiltzen zen Mikelete etxea bota zuten.

1933

Cinema Salon antzokia eraiki zen Jose Migel Iturriotz kalean.

1933

Aitz-Zorrotz Ehiza eta Arrantza Elkartea eratu zen, garai bateko Agirre tabernan.

1933

Erlijosoei irakaskuntzan jardutea debekatzen zien Kongregazioen lege berria onartu zen. La Salleko Anaiak abituak alde batera utzi behar izan zituzten irakatsi ahal izateko.

1933

Katea pasagunea baliogabetu zen. Antzizarretik ihurreko gasolindegira, trenbideetako tunelaren eta Estanda ibaiaren gainetik doan bidea eraiki zen.

1934

Garin auzoan Eskola eraiki zen, batez ere, lanik gabe zeuden herritarrek lan egiteko asmoarekin.

1934

Mandubirako bidegurutzetik Arriaran eta Garin auzoetara joateko errepidea eraiki zen.

1934

Manuel Perez Vazquez jaunak hartu zuen alkatetza (1934-1936).

1935

Urriaren 31n, Udalei Azokak eta Feriak egiteko ahalmena eman zien Udal Estatutuaren legea jarri zen berriro indarrean.

1936

Otsailetik uztailera bitartean, Biktore Bernedo Ansola jaunak hartu zuen alkatetza.

1936

Jose Luis Guridi Aranburu jaunak hartu zuen alkatetza (1936-1941).

1936

Industrial Ferretera S.L enpresa eratu zen burdindegia eta sarrailegintzako gaiak egiten hasteko.

1936

CAF eta Bernedo enpresak militarrek hartu zituzten, gerrarako materialak egiteko.

1936

Uztailaren 18an, Batzoki berria ireki zen.

1936

Uztailaren 27an, militarren esku erori zen Beasain. Uztailaren 27tik 28ra bitarteko gauean 35 lagun fusilatu zituzten izandako liskarretan. Pablo Cayuela teniente koronelaren agintzapean sartu ziren herrira.

1939

CAFek Talleres de Irun lantegia bereganatu zuen.

1939

Manufacturas Olan enpresa hasi zen udalerrian lanean Ezkiaga auzoan.

1939

Pedro Jose Iguain jaunak Loinatz Abesbatza sortu zuen.



A20

1939

Maiatzaren 22an, Espainiako gudan aritutako Oriamendi tertzioko herriko soldaduek baimena izan zuten jaietara etortzeko.



A21

1939

Abenduaren 8an, Beasaingo Nekazarien Sindikatuak izen berria hartu zuen, Cooperativa Católica del Campo (Nekazaritza Elkartea Katolikoa).

1939

Abenduaren 8an, Loinatz Koralarren aurkezpena eta lehen jarduna izan zen.

1940

Larrañaga eta Ormazabal S.R.C enpresa sortu zen, gaur egun INDAR Eraikuntza elektromekanikoak izena duena.

1940

Suhiltzaile Parkea eraiki zen Arana kalean.

1941

Martin Esnaola Elizegi jaunak hartu zuen alkatetza (1941-1949).

1942

Fundiciones Marques galdategia sortu zen Senpereko trenbide-pasagunearen alboan, Arana kaleko etxeen parean eta Oria ibaiaren ondoan.

1942

Abere Hiltegiaren inguruan horma bat eraiki zen, uholdeetan sarri gertatu ohi zen bezala, Oria ibaiko urak hango lantegietan sar ez zitezen.

1943

S.D. Beasain elkarteko mendizaleek Murumendiko iturri ezaguna eraiki zuten.

1943

Herriko Ongintza Batzordea sortu zen. Alkatea eta erretorea izan ziren batzordeburuak.

1943

Uztailaren 23an, Mendiko Taldea eratu zen S.D. Beasain elkartearen barruan.

1945

Loinatz ermitaren ondoan zegoen izengabeko baserria bota zuten. Hiru solairuko etxe txiki bat eraiki zen bertan.

1945

Herrian Karola esan ohi zitzairen tren konpainiako langileen bizileku izandako etxetoak bota zituzten.

1947

Arkasingo iturburuko urak biltzeko lanak amaitu eta 1,8 km-ko hoditeriaren bidez Zazpiburietakoekin elkartu ziren.

1949

Migel Cerrajería Tiffe jaunak hartu zuen alkatetza (1949-1954).

1950

Uztailaren 20an, Erauskin auzorako bidea inauguratu zen.

1950

Uztailaren 30ean, I. Kostaldeko Itzulia antolatu zuen S.D. Beasain Elkartek.

1951

Egurrezko kiosko berria eraiki zen azokako plaza estalian.

1952

Irailaren 6an eta 7an Jose Martin Arana kaleko lehendabiziko jaiak ospatu egin ziren.

1952

Abenduaren 9an, Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren egoitza berria eta Udal Liburutegia inauguratu ziren.

1953

Arte eta Lanbide Eskola zaharraren eraikinean Lanbide Heziketarako Eskola Sindikala sortu zen.

1953

German Zaballos jaunak hartu zuen alkatetza (1953-1957).

1953

Abuztuaren 23an, Usurbeko gurutzea inauguratu zen. 10 metroko altuera eta 4 metroko besoak ditu.

1953

Urriaren 15ean, herrian oroitzen den uholderik ikaragarrienetako bat izan zen.

1954

Maiatzaren 31n, Nafarroa Etorbideko Pasealekua (Gernikako pasealekua) bere itxura berriarekin inauguratu zen.

1954

Azaroaren 7an, Murumendi Pelotazale Elkartea ireki zen Izkiña taberna zaharra zegoen lekuan.

1955

Urtarrilaren 8an, Beasaingo eta Ordiziako ingurabidea ahalbidetzen zuen N-1 errepideko tunelaren hirugarren zatia amaitu zen. Hamarkada horretako lanik garrantzitsuenak izan zen.

1956

Indar enpresaren lau etxebizitza-eraikinen altxatze lanak amaitu ziren Zelaeta aldean.

1956

Frontoi zaharraren eta frontoiaren alboko hormaren atzean zeuden QUIFOSA lantegiaren eraikinak bota ziren. Usurbe antzokia eta honen ondoko etxearen eraikuntza-lanak hasi ziren.

1956

Egungo Nafarroa etorbideko 39 zenbakian kokatuta zegoen Zelaetazar baserria bota zuten.

1956

Telefonica-ren Eskualdeko Zentral berria ireki zen Jose Migel Iturriotz kalean. Telefono automatikoa errealitate bilakatu zen.

1956

Ibulus baserriaren lursailetan Fundiciones del Estanda enpresa eratu zen.

1957

Pablo Hunolt jaunak hartu zuen alkatetza (1957-1966).


1957


Urriari CAFeko etxebizitza berriak eta Oriamendi kalea inauguratu ziren.

1957

S.D. Beasain Kaobania izeneko txirrindulari taldea sortu zen.







1972

Apirilaren 2ko Gotzain Dekretuari jarraituz, Loinazko San Martin Parrokia berria eratu zen Aita Frantziskotarren zuzendaritzapean.

1973

Dendarien Elkartea sortu zen.

1973

Ezkiabaso baserria bota zuten.

1974

Usurbe Antzokiaren parean, Oria ibaiaren gaineko lehenengo zubia eraikitzeko lanak hasi ziren.

1974

Abenduaren 31n, lehenengo aldiz ospatu zen San Silbestre proba.

1975

Udaberrian Urbi baserria bota zuten.

1975

Irizar Zaballostarren eta Murgiondotarren etxeak bota zituzten Nafarroa etorbidean.

1975

Abuztuan Ezkiagatziki baserria (Caserio Blanco delakoa) bota zuten. Beasain eta Ordizia arteko errepidearen ertzean zegoen kokatuta.



A28

1975

Maiatzaren 11n, Espainiako Itzulia iritsi zen Beasaina. Miranda de Ebro eta Beasain arteko etapa Stevens-ek irabazi zuen.

1976

Erauskingo hilerri berria eraiki zuten.

1976

Miguel Alvarez Rodriguez jaunak hartu zuen alkatetza. (1976-1979)

1976

Zubimuzu plaza berria inauguratu zuten.

1977

Hunolt Tinta Fabrika Senpere auzora aldarazi zuten.

1977

Ikastolentzat dirua biltzeko asmoz, lehenengo aldiz ospatu zen Kilometroak Beasainen.

1977

Otsailaren 21ean, Zapatarri baserria bota zuten Igartzan.

1977

Azaroaren 2an, Beasaingo ASPACE zentroa lanean hasi zen.

1978

Mariarats baserria bota zuten.



A29

1978


Mandubian, Astigarreta auzoari dagozkion eremuetan, historiaurreko bi tumulu aurkitu zituzten.


1978

Urteko festak ospatzen ari zirela, erauntsiak eraginda, Muru Erreka bere tokitik irten eta Andre Mari kalea eta Kale Nagusia erreka bihurtu ziren.

1978

Ekainaren 13an, beste uraldi handi bat izan zen Oria ibaian.





1987

"Beasain: udalerri gipuzkoar baten historia" liburua argitaratu zen.

1987

Irailan Beasaingo Udal Euskaltegia sortu zen.

1988

Makinetxeko industrialdea eraiki zen.

1988

Esteban Lasa apaiz jaunaren Muttegienea etxea bota zuten.

1989

Azken gorpuzkinak atera ondoren, Zelaetako hilerri zaharra botatzen hasi ziren.

1989

Ekainaren 8an, egindako Osoko Bilkuran, Beasaingo Oinarrizko Kontserbatorioa izeneko Udalaren Erakunde Autonomoa sortzea erabaki zuten.

1990

Asmube, Beasaingo Emakumeen Elkartea eratu zen.

1990

Jose Migel Iturriotz kaleko "Cinema Salon" zine-antzokia bota zuten.

1990

Abenduan Senpereko merkataritza-gune berria ireki zen Agauntza ibaiaren ondoan.

1991

Ezkiaga auzoko CAFen etxeak bota zituzten.

1991

Jose Luis Arriola jaunak hartu zuen alkatetza (1991-1995).

1991

Martxoan tenis pista eraikitze lanak amaitu ziren Antzizarko kirol eremuan.

1991

Martxoaren 4an, eskualdeko Sasieta zabortegia inauguratu zen Salbatoren.

1991

Abenduaren 28an, Nekola baserria bota zuten.

1992

Uztailan Frantziako Tourra lehen aldiz igaro zen Beasaindik.

1992

Urrian "Laster" hilabetekaria argitaratu zen. Herriko kultur ekintzen berri ematen zuen.

1992

Odolki Kofradiaren bidez, urrian Beasaingo Odolkia banatu zen Sevillako Erakusketa Unibertsalean.

1992

Irailaren 14an, Usurbe antzoki zaharra bota zuten.

1992

Irailaren 26an, bide bikoitzeko tunel berria eraikitze lanak amaitu zituzten lehengoarekiko paraleloan N-1 errepidean. 281 metroko luzera du tunel honek.

1992

Urriaren 22an, Erauskin auzoko Ferminenea baserria suak suntsiturik gelditu zen.



1992

Urriaren 26an, "Beasaingo Paperak" bildumaren 1. go zenbakia aurkeztu zuten. "Beasaingo Elkarte Herrikoiak" izan zuen gaia.

1993

Otsailaren 27an, Ezkierdi Pilotalekua inauguratu zen.

1993

Martxoaren 22an, 70 metroko garaierako telekomunikazio antena berria jarri zuten Usurbe mendiaren gailurrean.

1993

Abuztuaren 24an, N-1 errepidea bikoizteko urrats berri bat emanez, ibilgailuen zirkulazioarentzat ireki zen bigarren tunela.

1993

Urriaren 6an, 1909an sortutako La Salle Ikastetxeak eta Karitateko Alabek zuzendutako San Jose Ikastetxeak bat egin zuten. Eskola berriak La Salle San Jose izena hartu zuen.

1994

Ekainaren 29an, N-1 errepidearen tuneletik Olaberriarainoko tarte bikoiztua inauguratu zen.

1994

Uztailaren 28an, Arriarango presa inauguratu zen. Horrela amaitu ziren uraren hornidurarekin loturiko arazoak.

1994

Abuztuaren 20an, eskualdeko Abere Hiltegi zaharra botatzen hasi ziren.

1994

Abenduaren 1ean, Igartza aldea Zuntzunegi eta Altamira baserriekin lotzen dituen oinezkoen pasabidea estreinatu zen.

1994

Abenduaren 13an, Kontsumitzaileen Informaziorako Bulegoak lehen aldiz ireki zituen bere ateak.

1994

Abenduaren 23an, Usurbe antzoki berria inauguratu zen.

1995

Jon Jauregi Bereziartua jaunak hartu zuen alkatetza (1995-2003).

1995

Urtarrilean hasi zen Antzerki Garaia lehenengo zikloa, Beasaingo eta Ordiziako Udalek elkarlanean antolatuta.

1995

Abuztuaren 7an, Zubimuzu plazaren ondoan zegoen Kale Nagusiko eraikin zaharra bota zuten.

1995

Urriaren 2an, CAFeko adarra isildu zen.

1996

Ekainaren 25ean, Sagastiguti parkea inauguratu zen.

1996

Ekainaren 28an, Gurutze Gorriaren Eskualdeko Zentroa inauguratu zen Urbalden.

1996

Irailaren 1ean, Beasaingo Andramendi Ikastola sortu zen.

1996

Irailaren 24an, Zelaetaberri baserria bota zuten.

1996

Urriaren 23an, helikoptero militar batek Usurbeko gurutzea jo zuen.





Abenduaren 14an, Mikele-
teen, Aurrezki Kutxa
Probintzialaren, Liburute-
giaren eta Gurutze
Gorriaren egoitza izandako
eraikuntza bota zuten
geltoki inguruan.

1996



Udalbatzak
Agintarien
Soka-dantza
egiteko ohitura
berreskuratu zuen.

1997

1997

Urbietako zubi berriaren eraikitze lanak amaitu
zituzten.

1997

Ekainaren 15ean, Alkartasuna Lizeoaren publikazioa
burutu zen.

1997

Ekainaren 27an, Beasain-Durango autobideko
Antzizar eta Ormaiztegi arteko tartea ireki zen.

1997

Abenduaren 12an, Urbieta eraikina inauguratu zen,
Abere Hiltegi zaharra zegoen lekuan. Hango bide
eta aparkaleku berriak ere inauguratu ziren.

1998

Ezkierdi esan ohi zitzaion Ezkiaga aldeko azken
baserria bota zuten.

1998

Uztailaren 15ean, Nafarroa Etorbideko Albisuenea
etxea bota zuten.

1998

Abuztuaren 5ean, Beasainmendiko baserriak urez
hornituko zituen depositua egin zuten Arteta
baserriaren inguruan.

1998

Irailaren 7an, Azpeitia Anaiak, Garaje Modernoa,
Ferretera Industrial eta Irurena Tailerrak enpresen
eraikinak botatzen hasi ziren.

1998

Irailaren 14an, Lazkaibarko trenbide azpiko bidea
ireki zen.

1999

Garinenea etxea bota zuten etxebizitza berriak
eraikitzen hasteko.

1999

Geltoki aldeko Estanko ezagunaren eraikina bota
zuten etxebizitza berriak egiteko.

1999

San Andres ermitaren teilatua eta erretaula
zaharbertitzeko eta konpontzeko lanak hasi ziren.
Indusketa arkeologikoa egin zuten eta hainbat
gorputzen hezurak azaldu ziren.

1999

Abenduaren 20an, Bideluzeko zubi berria
inauguratu zen.

2000

Igartza zonaldean zubi berri bat eraikitze
lanak hasi ziren.

2000

Igartza
Jauregia
Beasaingo
Udaletxeak
erosi zuen.



2000

Otsailaren 15ean, Kale Nagusiaren eta Goierri kalearen
arteko kantoian zegoen Perikoren etxea izeneko
eraikina bota zuten.

2000

Ekainaren 11an, inauguratu zuten Igartzako
Jauregian 9 proiektoreko diaporama eta Igartzak
bere ateak jendeari ireki zizkion, modu
iraunkorrean, bisita gidatuen bidez.

2000

Irailaren 10ean, Nagusilan Elkartea martxan jarri zen.

